

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
ERRITMO, MUSIKA ETA MUGIMENDUA	151334	2024-25
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
HAUR HEZKUNTZA	3.	2.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
ARTE ETA HEZKUNTZA AIPAMENEOA	6	EUSKARA
Irakaslea(k)		
JUNE KORTAZAR ZABALA		

Justifikazioa

"Erritmo, musika eta mugimendua" ikasgaiak, musika eta erritmoaren funtsezko osagaien ezagutzan errazten dio ikasleari. Musikak, mugimendu ahalmen eta irudimen motorrik gabe, gizakiaren adierazpenean zentzurik ez dauka. Ikasleak ikasgai honen bidez, egoera didaktikoak praktikara eramateko estrategiak ikasiko ditu, haurren garapen momentua kontuan harturik. Praktika egoerak, non jolas, abesti eta dantzen bitartez, ikaskuntza egoerak sortuko diren, Haur Hezkuntzako curriculumeko gaitasunak eta edukiak landuz.

Ikasgaiaren zehar, "talde lana" konpetentzia orokorra landuko dugu, elkarlaneko ikaskuntza sustatuz eta lankidetzan aktiboan jarduten.

Aurrebaldintzak

Gomendagarria da Gorputz adierazpena eta bere didaktika ikasgai gaituta izatea.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- TALDE LANA: Menderatze maila 2: Taldea sendotzen eta garatzen laguntzea, komunikazioa, zereginen banaketa orekatua, barruko giroa eta kohesioa sustatuz.

Berriazko gaitasunak

- Curriculumean ezarritako lorpenak bideratzeko, dantzaren bitartez Haur Hezkuntzako ikasleentzat ikasketa egoerak diseinatzea.
- Norberaren formazioan sakontzeko, ikerketa artistikorako estrategietan oinarritutako ezagutza-proiektuak garatzea.
- Curriculumean ezarritako lorpenak bideratzeko, Haur Hezkuntzako ikasleentzat Dantza Unitate Didaktiko globalizatua diseinatzea.



1.2.12. GIH | Produkzio eta kontsumo arduratsuak | Kontsumo eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea

Ikasgaiari, ikasleak ulertuko du, gelan hartutako erabakiak eta kontsumitzen diren baliabideak, eragina dutela haurren nortasunaren eraikinean eta irakaslea, eredu bezala, gai izan behar da gelan eta kontsumitzen diren musikak eta dantzen inguruan (gure ikasgaiaren kasuan), hausnarketa sakona egiteko.

Haur Hezkuntzan lantzen diren arte-produkzioak, balio-kalitatezkoak eta hezitzaileak izan behar dira, artearen kontsumoan baloreak transmitituz.



LSH | Hezkuntza ekologikoa

Edukiak

1. Dantzaren azterketa, Haur Hezkuntzako Dekretuan.
2. Dantzaren kontzeptualizazioa: osagaiak, motak, moduak eta dimentsioen ezagutzak.
3. Dantzaren prozesu pedagogikoaren garapena eta irakaskuntza estiloen bereizketa.
4. Dantza saioaren faseen analisia.
5. Konposizioaren eta koreografiaren edukien analisia eta aplikazioa.
6. Haur hezkuntzan aplikatzeko proiektu artistikoak.
7. Dantza folklorikoak.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaiari erabilitako estrategiak, eduki teorikoen eta lan praktikoen mailakako eta paraleloko garapena sustatzen du.

Horretarako, hurrengo ikas-metodoak eta teknikak erabiliko dira:

- **Aurretiko ideien azterketa:** Ikasleek, talde lanean, euren esperientziak eta eztabaidak kontrastatuko dituzte, ikasleen aurrezagutzak eta aurreiritziak azaleratuz. Lehen eztabaida hauek, alde batetik Dantzaren kontzeptuari buruz hitz egingo dute eta beste alde batetik dantzaren irakaskuntza goeraren aurreiritziak azaleratuko dituzte, zalantzak eta argitu beharreko topikoak bereiziz.
- **Oinarrizko testuen irakurketa eta analisia:** Konpetentzien garapena bultzatzeko, oinarri teorikoaren eraikuntzari ekingo diogu lehenik eta behin. Horretarako, ikasleek taldeka, irakasleak eskaintako oinarrizko dokumentazioaren irakurketa eta azterketa lana egin beharko dute (75/2023 DEKRETUA). Ikasgai honetan, zenbait artikulua irakurri beharko dira, Dantzaren kontzeptualizazioan sakontzeko beharrezkoak direnak.

- **Esposizioa:** Kontzeptualizazio lana egingo da irakaslearen azalpenen bitartez. Kontzeptualizazio lan honek Dantzaren espezifikotasunean progresiboki sakontzera eramango gaitu, erritmoa, musika, mugimendua, konposizio eta koreografia edukiak landuz.
- **Talde esperimentazio aktiboa:** Teorian ikasitakoa praktikan jartzea beharrezkoa da, askotan praktika hori fisikoa eta taldekakoa izanda. Kontzeptu teorikoen aplikazioa egingo dugu, ikasleen esposizioen bidez, ariketa praktikoen bidez eta dantzaren ikerketaren metodoan lan eginez.
- **Aplikazioa eta transferentzia:** Ikasgaiaren zehar lortutako ezagutza teorikoen transferentziak egiteko, proposamen praktikoen baten diseinua egingo dute. Proiektu globalizatzaileak eta Haur Hezkuntzarako dekretua aintzat hartuz, Unitate Didaktiko bat taldeka egingo dute non dantzaren edukiak agertuko diren.
- **Mintegi tutorizatuak:** Ikasgaiaren espezifikotasuna eta beharrianengatik, entsaiatzeko momentu tutorizatuak behar dira, zuzendu beharreko akatsak "in situ" eta zuzenean egin behar direlako eta gaitasun orokorraren ebaluazio erregistroak momentuan hartzeko.
- **Feedback eta finkatzea:** Praktika fisikoaren ostean eta froga espezifikoaren ostean, taldeka hausnarketak egingo dituzte, teoriarekin erlazionatuko dute eta finkatzeko, ikasleek ariketa berriak edo baieztapen berriak sortuko dituzte.
- **Aurkezpen formalak:**
 - Taldeko ebaluazio egiteko 1:** Taldeka, google site bat sortu beharko dute munduko dantza bati buruz. Informazioa, musikak, dantzak, eszenografia, argazkiak eta bideoak konpartitu beharko dituzte, euren ikaskuntza zonaldea hedatuz. Ikasitakoa praktikan jarri beharko dute ere bai.
 - Taldeko ebaluazio egiteko 2:** Taldeka, ikasleek irakaslearen rola hartuko dute eta euren Munduko Dantzaren proiektuaren ikaskuntza prozesua, aurrea eramango dute.
 - Taldeko ebaluazio egiteko 3:** Taldeka, Haur Hezkuntzarako Ikas egoera bat burutu beharko dute, tratamendu globalizatzaile batetik.
 - Taldekako ebaluazio egiteko 4:** Taldeka egindako Ikas egoeraren obra artistikoaren koreografia, eszenatokian aurkeztu beharko dute.
- **Talde lanaren koebaluazioa eta talde lanaren norbanako autoebaluazioaren txostenak:** Gaitasun orokorra lantzeko asmoz, txosten hauek entregatu beharko dituzte talde eta taldekide guztiek.
- **Ebaluazioa:** Saio praktikoa eta aurkezpen formalen ostean, ikasleek eta irakasleek, egindako lanaren ebaluazioa egingo dute, aurretik eskainitako ebaluazio irizpideak kontuan harturik. Irakasleek hobekuntzarako orientabideak emango dizkie.

Ikasgaiaren 6ECTS kontuan harturik, 150 orduak honela banatuta daude:

- Orduak eta jarduerak gela barruan: 60 ordu
 - Esposizioak: 16 ordu.
 - Jarduera praktikoa: 25,25 ordu.
 - Behaketak eta Hausnarketak: 6,25 ordu.
 - Ebaluatze jarduerak: 12,5 ordu.
- Orduak eta jarduerak gelaz kanpo: 90 ordu
 - Ikasketa eta berrikusketa pertsonala: 16,5 ordu.
 - Jarduera praktikoen prestaketak: 17,75 ordu.

- Behaketak eta Hausnarketak: 6 ordu.
- Ebaluatze jarduerak: 39,75 ordu.
- Tutoretza jarduerak: 10 ordu.

Ebaluazioa

Hurrengo teknika eta kalifikazio prozeduren bitartez ebaluatuko dira gaitasuna orokorra eta gaitasun espezifikoak:

- **Gaitasun Orokorra (Talde lana) %15:** Talde lanaren koebaluazioa eta Talde lanaren norbanako autoebaluazioa %10a (kalifikazio negoziatua) eta Demostrazio Praktiken behaketaren %5a (Mintegi Tutorizatuak).
- **Gaitasun espezifiko 1 (Curriculumean ezarritako lorpenak bideratzeko, dantzaren bitartez Haur Hezkuntzako ikasleentzat ikasketa egoerak diseinatzea.)%25:** Taldeko ebaluazio egitekoaren %15a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %10a.
- **Gaitasun espezifiko 2 (Norberaren formazioan sakontzeko, ikerketa artistikorako estrategietan oinarritutako ezagutza-proiektuak garatzea.) % 20:** Taldeko ebaluazio egitekoaren %10a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %10a.
- **Gaitasun espezifiko 3 (Curriculumean ezarritako lorpenak bideratzeko, Haur Hezkuntzako ikasleentzat Dantza Unitate Didaktiko globalizatua diseinatzea.)%40:** Taldekako ebaluazio egitekoaren %5a, Aurkezpen Koreografikoa %15a eta Demostrazio praktikoen behaketaren %20a.

EBALUAZIO SISTEMA:

- **Taldekako ebaluazio egitekoak %30** (Munduko dantzaren Site eta ikas egoera)
- **Ikas Egoeraren Aurkezpen Koreografikoa %15**
- **Demostrazio praktikoen behaketa (eguneroko jarduerak eta Munduko dantzaren aurkezpena) %40**
- **Talde lana %15** (koebaluazioa, autoebaluazioa, irakaslearen kalifikazioa)

Ikasgaia gainditzeko ohiko deialdian, 10 puntuaziotik 5 bat atera beharko da. Gaitasun orokorra, Aludeko ariketak, Taldekako ebaluazioa egitekoak eta Aurkezpen koreografikoak derrigorrezkoa izango dira gainditzea.

Ikasgaia gainditzeko ezohiko deialdian, ohiko deialdiaren eskaera berdina jarraituko dira. Ez gainditutako atalak berriro egin eta gainditu beharko dituzte. Salbuespenak barne, beti ezarritako gaitasun orokorraren arabera, ebaluazio desberdina adostuko da.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

Jardueren jarraipen ona egiteko eta programaren baldintzak betetzeko, ikaslea honako dokumentazioarekin gidatuko da.

- Ikasgaiaren materiala ALUD plataforman eskegita.
- Haur Hezkuntzako DEKRETUA 75/2023.
- Oinarrizko bibliografia.

BIBLIOGRAFIA OSAGARRIA:

- Abbadie, M. y Madre M.L. (1968). Comment faire? L'éducation rythmique. Paris: Fernand Nathan.
- Agudo, D. (2002). Juegos de todas las culturas : juegos, danzas, música-- desde una perspectiva intercultural. Barcelona: Inde.
- Amado, D. (2013). La danza entendida desde una perspectiva psicológica. Sevilla: Wanceulen.
- Berge, Y & Matthey-Claudet, D. (2000). Danza la vida: el movimiento natural, una autoeducación holística. Madrid: Narcea.
- Calvet, C. (2011). Danza Creativa. Madrid: CCS
- Cateura, M. (1991). Danza y Audición. Barcelona: Ibis.
- Chinchilla, J. L. & Díaz, A.M.(2015). Danza, educación e investigación : pasado y presente. Málaga: Aljibe.
- Dunkin, A. (2006). Dancing in your school : a guide for preschool and elementary school teachers. New Jersey: Princeton Book Company.
- Elorriaga, A.J. (2015). ¡Música, maestros! : manual de conocimiento musical para Educación Infantil y Primaria. Logroño: Unir.
- Fuentes, S. (2008) Pedagogía de la Danza. Bilbao: ACDG.
- Fuertes, M. (1993). Danzas de animación. Madrid: San Pablo.
- Gaetner, R. (1981). Terapia Psicomotriz y Psicosis. La danza y la música. Barcelona: Paidós.
- García, H. M^a. (1997). La danza en la escuela. Barcelona: Inde.
- Haselbach, B. (1978). Dance Education : basic principles and models for Nursery and Primary School. London : Schott & Co.
- Hernández, A. (2009). La danza académica y su metodología : análisis del movimiento en relación con la estructura musical. Valencia: Mahali.
- Hugas, A. y Batle, C. (1996). La danza y el lenguaje del cuerpo en la educación infantil. Madrid: Celeste.
- Jolas Tailerrak (2001). Iruñea: Sortzen ikasbatuaz Elkartea.
- Kontu txikiak (2004). Iruñea: Sortzen ikasbatuaz Elkartea.
- Minton, S.C. (2011). Coreografía : método básico de creación de movimiento. Barcelona: paidotribo.
- Motos, T., Navarro, A. & Palanca, J.M. (2018). Taller de teatro y danza. Barcelona: octaedro.
- Muñoz, A. (2014). La evaluación en la danza. Buenos Aires: Ballentin Dance coop.

- Ñíguez, M.J. (2016). Mundo mágico de la danza : apuntes sobre pedagogía de la danza. Barcelona: La liebre de Marzo.
- Osona, P.(1984). La educación por la danza : enfoque metológico. Barcelona: Paidós.
- Panhofer, H. (2005). El cuerpo en psicoterapia : teoría y práctica de la danza movimiento terapia. Barcelona: Gedisa.
- Pérez, S. & Roig, M. (2005). Un paseo por el bosque. Barcelona: Bellaterra.
- Pedrero, C. (2012). Danza histórica : estudio de danzas y pasos para educación artística. Salamanca : Publicaciones Universidad Pontificia
- Robinson, J. (1999). El niño y la Danza. Barcelona: Octaedro
- Snow, M. (2008). Movimiento, ritmo y música : una biografía de Gloria Contreras. México: FCE.
- Tena, I. (2018). Expresión corporal desde la danza creación : proceso de elaboración de una unidad didáctica en educación infantil y educación primaria. Zaragoza : Pressas de la Universidad de Zaragoza
- Ulman, L. (1984). Danza educativa moderna Rudolf Laban. Barcelona: Paidós.
- Wengrower, H. & Chaiklin, S. (2010). La vida es danza : el arte y la ciencia en la Danza Movimiento Terapia. Barcelona: Gedisa.